

“Oso naziak gara, gorputzak askotarikoak dira”

Nerea Sancho | Sexologoa

Ingurukoak aztertzea gustatzen bazaizu, esaeizu sexologo batekin gelditu zarela, eta ikusiko duzu zer aurpegi jartzen dizuten.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Alex Larretxi

“Ama, ama, zer da sexologo bat?”

Pertsonen erreparatzean gizonen eta emakumeen ikusten dituen norbait. Gizakiaren natura elkarren ezberdinak izatean datzala ulertzen duen norbait. Baina ezer baino lehen, gizaki bat, pertsona bat.

Nik uste nuen gizarte honen balore, jarrera eta kanonen aurkako mugimendua zinetela!

Jendeak *normala* izan nahi du eta hori problema bihurtzen da. Zergatik ukan behar ditugu denek helburu berberak? Tropelekoa ez izateko arazo asko sortzen ditu, baina baita satisfazio handiak eman ere.

Beti ihesaldian joan beharra ere...

Ezin dugu espero mundu guztia dibergentea izatea, baina dibergentziak ulertuko bagenu elkarrekin hobeto konponduko ginatke.

Zuri ez zaizu halakorik komeni.

Edera litzateke sexologiaren alderdi sendagariaren beharrik ez izatea! Poltsak eta bidaiatzeko mailetak diseinatzen jardungo nuke.

Lasai, gure sexu-heziketa film pornoetan oinarritzen den bitartean...

Nerabezeroan dauden mutilentzat nire babes eta elkartasuna. Nacho Vidal eta zakilaren tamainarekin matxakaturik daude. Beti elkarrekin borrokan, beti elkarri gizonagoa zein den erakutsi beharrean.

Ez al zen txoltoa arra izatea?

Geroz eta gizonen ausart gutxiago dago. Batzuk kartzelara doaz, besteak kikilduta daude, ez dago erdibiderik?

Auskalo, baina dena bide erdian al dago?

Dikotomizatuta bizi gara eta ez dugu haragoko ezer ikusten. Beti ala inoiz ez, garuna-gorputza, maitasuna-sexua, infernua-zerua, haragia-arraina, mendia-hondartza, txuria ala beltza, on ala off, sarketa ala “ezer ez”. Baina zer da “ezer ez”?

Ez zara Aita Santua bezain katolikoak garela esaten ariko, ezta?

Plazera lortzeko lehenbizi sufritu behar dugula iruditzen zaigu. Bestela ez dugula merezi. Sakrifizioa da gure jokabidearen erroetako bat.

Aizu, sakrifikatu gabe goapo nagoela amak eta amonak baino ez didate esaten!

Oso naziak gara. Nik lodia zarela esaten badizut iraina dela ematen du. Nola izango da iraina? Erotu gara ala zer? Gorputzak askotarikoak dira!

Trankil, www.goxoki.com-ek sendatuko gaitu!

Soluzioak behar ditugu. Eskolan derrigorrezkoa den sexu-hezkuntza ondo eman dadila, eta Nazio Batuek defendatzen dituzten herritar guztientzako sexu aholkularitza zerbitzuak sortu ditzatela. Bete ditzatela sexu eskubideak, behingoz! ■